

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 1.GAIA. AUDITORIAREN OINARRIAK

Galdera bakoitzean erantzun zuzena(k) azpimarratu:

1. Urteko Kontuen Ikuskaritzaren kontzeptua, beharra eta helburuak:

- Urteko Kontuen Ikuskaritza, pertsona aditu eta independente batek burutzen duen jarduera da, aurkitutako arazo guztien aholkularitza enpresari bakarrik emanez.
- Urteko Kontuen Ikuskaritzak informazio kontablea fidagarria den egiaztatuko du eta beraz, enpresaren iraunkortasuna eta kaudimena bermatzen du.
- Urteko Kontuen Ikuskaritzaren helburua ikuskatutako erakundearen urteko kontuetan eragina izan dezaketen akats edo iruzur guztiak aurkitzea da.
- Urteko Kontuen Ikuskaritzak informazio kontablea fidagarria den egiaztatzen du eta beraz, arrazoizko segurtasuna eskaintzen du.

2. Kontuen auditoria lanak ondorengoetan datza:

- Enpresaren kontabilitatean egon daitezkeen akatsak zuzentzea.
- Urteko kontuak aztertu eta egiaztatu enpresaren oraingo eta geroko egoerari buruz txostena igortzeko.
- Urteko kontuak aztertu eta egiaztatu, finantza informazioari aplikagarri zaion legeriaren arabera irudi fidela erakusten dutenari buruz iritzia emateko.
- Iruzurra sumatzeko helburu bakarrarekin egindako urteko kontuen azterketa da.

3. Ondorengo sozietate anonimoek kontuen auditoria egiteko betebeharra izango dute:

- Merkatu arautuetan onartutako balioak kotizatzen dituen enpresa oro.
- Interes Publikoko Entitatea izateko definizioa betetzen dituzten sozietate anonimoak.
- Tamaina dela eta, Gobernuak Errege Dekretuz finkatutako aktibo, negozio zifra eta langile kopuruen mugak gainditzen dituzten enpresak.
- Merkataritza erregistroan kontuak uzten dituen enpresa oro.
- Merkataritza erregistratzaileak zozketa bidez enpresa eta auditorea izendatzen duenean.

4. Kontu auditoreak:

- Auditatutako enpresatik jasotako informazioaren babespekotasuna (konfidentzialtasuna) mantendu behar du.
- Aholkulariak baino gehiago kobratuko du auditorian egindako lanaren zailtasuna kontuan hartuz.
- Independentea dela erakusteko bere fakturazio pertsonala ICAC-eko Buletin Ofizialean argitaratuko du.
- Kontu auditoreak bere lanean umore ona erakutsi behar du.

AUTOEBALUAZIO GALDETEGIA: 1.GAIA EBAZPENA

1.	d
2.	c
3.	a; b; c
4.	a